



OTSAGI
COUNTY

OTSAGI (ZARAITZU)

Biktoría Argontzekoa, Mañolanda nagusia, Bixente Kanbra, Garax etxekoa,
Julia Sanzetekoa eta Basilia Contin

- *Nola deitzen zara?*
- *Biktoría Moso Rekalde.*
- *Zein etxetakoa?*
- *Argontxe etxea.*
- *Non ikasi zinu en uskara?*
- *Pues, karrikan xardukitzen Kanbren emaztea eta gizona eta gero alaba, alaba bat, bizi den alaba, txikiena eta kala...*
- *Eta zure aitari eta amari ez zinaben aditu uskara?*
- *Bai, aitu bai, bai, akar egiteko, esto, gaizki errateko gurendako.*
- *Eskolan uskaraz egiten zinien?*
- *Ez, ez, deus ere, anitz gaixto eskolan.*
- *Eta elizan?*
- *Elizan deus ere.*
- *Apezak ez ziren uskaldunak?*
- *Apezak?, ez, ez. Len bai aniz, konfesatu eta, guzia, emazteak, en uskera.*
- *Pena ematen dauzu euskera Otsagin galtzeak?*
- *Aniz pena, aniz, ni near egiten (---), zomat aldiz near egiten, zerendako bear din galdu?*

- *Zer etxetakoa zara?*
- *Mañulanda etxeko.*
- *Nori aditu zinakon uskara?*
- *Aitak eta amak, aitak eta amak...*
- *Karrikan elegiten zinien uskaraz?*
- *Ez, guti, guti, karrikan guti, guti, guti...*
- *Eskolan?*
- *Eskolan, deus ez.*

- *Eta elizan?*
- *Elizan bai, don Daniel, don Daniel.*
- *Apezak euskaldunak ziren?*
- *Don Daniel bai, don Daniel bai... berzeik, berzeik ez... eztaiz...*
- *Orai, norbaitekin elegiten duzu euskaraz?*
- *Orai ez.*
- *Noiztik ez duzu euskaraz xardokitu?*
- *Pues, anitz urtez, anitz urtez.*
- *Zonbat urte?*
- *Pues, berrogeitamar.*

- *Ene izena da Julia de Carlos Salcet, eta sortrik Sanzeten etxean, está bien? ...aitaborze ta ...*
- *Nori aitu zinakon euskara?*
- *Aitaborze ta amorzeari, eta aita ta amari ere bai.*
- *Noiz artio elegin zinuen uskaraz?*
- *Hamalaur edo hamabos urte artio.*
- *Eta eskolan?*
- *Eskolan ez, ez; elizan, elizan katezismoan.*
- *Orai inorekin elegiten duzu uskaraz?*
- *Ez, ez iorekin.*
- *Zonbat urtez egon zara euskaraz xardokitu gabe?*
- *Hirurogeita bat, hirurogeita bat.*
- *Pena ematen dauzu euskara galtzea...?*
- *Anitz pena, anitz.*

- *Erranen dauzut nola deitzen naizan, pues, Bizente Kanbra.*
- *Zer etxetakoa?*
- *Garaxena.*
- *Eta zure emaztea ze etxetakoa...?*
- *Nor?, emaztea?, Burletenea, Burleteneko.*
- *Euskalduna zen ere?*
- *Uskalduna bai.*
- *Noiz artio elegin zinien euskaraz, zien artian?*
- *Gure artean?, ba, ez ginuen denbra anitzez egin uskarara ³ ez, guauren artean, denbora kaitan guti, guti xuntatzen zen gazteriara.*

(3) Zaraitzuko euskalkian –a itsatsiaz amaitzen diren hitzetan, NOR kasuan –ra bukaera eransten diote hitzari: *alabara, elizara...* etab.

- Zure aitari t'amari aditu zinaben erdara?
- Erdara?, ez, guti, guti edo batere.
- Nun ikasi zinuen uskara?
- Kemen, etxen.
- Eta karrikan?
- Eta karrikan, eta karrikan, pues, ba... konpañereki, konpañereki.
- Zure adiñeko mutikoek euskaraz xardokitzen ziren ere?
- Bai, xardokitzen zien, bai.
- Pena ematen dauzu euskara galtzeak?
- Bai, pena ematen du, bai, ikasten den guzia ez lukek utzi behar galtzerat...

– Basilia Contín de Carlos, Otsagikoa, len Tomaxena, et'orai Blasadutena. Nik ikasi nuen, lenbizikoa ikasi nuen euskaraz, «o sea que» nee etxean etzien hitzegiten erdaraz batere, eta ni niz handiena, lenbizikoa, eta gero ez niz oroitzen noiz artio elegin nuen, amak esaten zuen eskolara fan artio, orduan utzi nuela elegitea, baia lenbizikoa, ikasi nuen hori, euskaraa.

– Amorziak eta aitaborziak bazakien zerbait erdara, baia etzien egiten sekula, haien artian sekula, guri zomait aldiz, baia euskaraz beti, haien artian beti eta guri ere bai, konprenditzen ginuen guzia, eta beti egiten zien, ni izauntu nuen, eta ni handitrik ere bai, eta aitak eta amak beti euskaraz egiten zien ele haien artean, eta guri ere bai baia gu, gu... egiten erdaraz, haiek euskeraz eta guk erdaraz.

– Artzaiek Bardeetan euskaraz elegiten zien haien artean?

– Bai, uste badut baietz, eh, nere aitak eta osaba Benanziok beti egiten zien, xiten zienian Otsagira, hola, igual egiten zien neguan, xunto zauden negu guzia, beti euskaraz.

– Zaraitzuko zein herritan galdu zen euskara lenbizi?

– Nik beti aitu dut Izalzun.

– Zergatik Izalzun?

– Pues, «no sé», akaso kontu da baia esaten zien karabinero aniz heldu zela hara bizitzera eta orduan galdu zen euskarara.

– Egun San Juan eguna da, nola igaretzen zen len eguna?

– Pues, xan eta deseiunas (?) mezara fan, gero xan eta ez dantza ez deus ere, deus ere...

– Etxean igaretzen zinien?

– Etxean, etxean edo paseatzen, karreteran paseatzen, borz edo sei mutil, emazte eta bi mutil... akonpañatzen, eta kala, zer bihar dugu egin.

– Pues, igande bat bezala, goizian konfesa ta komeka, gero mezara, artsaldian bezperatra, eta gero plazan dantzara ⁵.

– Nondik xiten zen musika, musikariak?

– Musikariak?, herriko gitarrak.

– Nortzuk ziren?

– Nor?, Motxale, eta Xinkoenetxean, eta gero nor?...

– Gizonek, len gizon guziek xakitzen zien. Mutilak pelota xokoan, eta gizonak kalbala, blankoa txokatzen dien kalbala, gero koadrillak hasten zien kan (---), eta gero etxera.

– Nola jolasten da kalbala?

– Nola?, kalbara zen harri bat, harri bat eta gero berze batekin egotsen zien, berze harria da atsoa, ta atsoan egots eta kala.

– Pues, pelotariak ziren Gabriel Baraze, Roberto Baraze, Josemari Larrat, gero Jaunsaraz eta Lasa, hoiek, sekretarion semeak sarearekin...

– Bai, igandetan, igandetan, eta gero egiten zien kanpeonato, Ezkarozereki eta Ezparzareki...

– Nortzuk ziren pelotari onenak?

– Onenak?, Otsagiko eta Ezkaroze... etan ere bai.

– Espartzakoak eta Pardixerriakoak txarragoak.

– Txarrak, txarragoak.

– Nola zelebratzen zen len San Juan eguna?

– Pues, «sobre eso», kori ere, pues, orai bezala zelebratzen zen.

– Zer egiten zinien?, musikaririk bazegon egun kortan?

– Bai, guti egoten zen musikara, guti...

– Eta pilotariak?

– Pelotariak ere ez anitz ez, bi gauza, bi ofizio kuek ez zren usatzen anitz.

– Pues hola izaten zen festa, baia ez gurean bakarrik, eta xiten zen zomait huesped, Ezkarozeko edo Eaurtako edo, hala... egin bazkari on bat eta horrekin bukatu.

– Dantzariak elkitzen ziren?

– Nik ez dut izaundu hori, len ez dakit.

– Mirrix-marrax, non izan? –Amiñenean. –Zer eman? –Txitxi ta papa.

(5) Dantza, **NOR** kasu mugatua.

–Non ene partea? –Graitzupean. –Graitzua non? –Suak erre. –Sua non?
–Urak hil. –Ura non? –Idiak edan. –Idia non? –Arto eriten. –Artoa non?
–Oloak xan. –Oloa non? –Arroltze erruten. –Arroltzea non? –Apezak xan.
–Apeza non? –Ori kukulian kukulian meza ematen.

– Mirrix-marrax, non egon? –Amorzeanean. –Zer eman? –Txitxi eta papa.
–Non ene partea? –Graizupean. –Graizua non? –Suak erre. –Sua non? –Urak
hil. –Ura non? –Idiak edan. –Idiak non? –Artu eriten. –Artua non? –Oloak xan.
–Oloa non? –Arroltze erruten. –Arroltzea non? –Apezak xan. –Apeza non?
–Sarri kukulian meza ematen.

*Eskerrak usuak ekarri
gure mutikotxuari,
birigarruak zozua
gure mutiko goxua.*

*Lo egiten badiazu
amak kantatuko dauzu,
lo egin ene maitea,
lo gozoa egin zazu.*

– Kuxkullu-muskullu danzari, bernar txirrinero, beltza galtzandi, otsoa dala
bistan, katilla ipurdi handi, txalastaso kuarto, siembro ttokilo, andres gallego,
ollanda arroltz errule, inoxantz urregile, gotzo xakoegile, aztal aragixale, iriarta
karregile, tomax xarzaletero, profesorro xorro gorro.

– Jo, jo, Manex, aita hil duk. –Zer izan du? –Baratzeko murrutik erori duk.
–Hautsi du azarik? –Ez, ez, rai-ta-la-la.

– Erran die xiteko oztekiala. –Oztekiala enaztekela xin, baia yatekiala
fanen nizala.

*Dingilin-don mari martin,
aitak astoa hilen din,
hiltzen badu hilen din,
txitxi ta zerengitin.*

...Azkonakoetxea,

– Noiz artio elegin zinuen euskaraz?

– Pues, hogeitau urteak artio.

– Orain inorekin elegiten duzu?

- Inorekin.
- Zonbat urtez ez duzu euskaraz elegin?
- Mekaguen diez, uskaraz, pues, igual, hirurogei urte.

- Oroitzen duzu gazta nola egiten zen?
- Gazta?, klaro, pues, ezniareki.
- Eta zer egiten zen?
- Pues, kuajoa, eznia kuajutzen zen.
- Zonbat gazta egiten zinien urtean.
- Pues, etxerako, hemen ezta egiten ya, guti, «poco más o menos» zerbait saltzen zen bana guti, yaguena...
- Gazta anitz izaten zinien?
- Ba!, pues, etxan bertze gauza bat bezala, askaltzeko ta, postretako, bazkalduta, ta atsaldetan eta kala...
- Eta zenbrena nola egiten zen?
- Ah, zenbrena?, pues gero berriz gaztari gentzen zena, kura berriz suan exartzen zen berxko batean, eta irakitzen, irakitzen, irakitzen, baratzen zen koajatrik, ta gero kola pues, zakuto batian eskorritzen zen, ta kala, «a lo mejor pues», kan baratzen zena, ya txuku...
- Nola xaten zinien zendrena, gordinik edo, zopan edo, nola?...
- Ah, zopa, eta gordinik ere bai zen onik, baia yaguena zopa, zenbren zopa.
- Orain xaten duzu zenbrenik?
- Orain?, ezpaitugu, ez dugu xaten.
- Inork ez du egiten orain? Inork ez du egiten zenbrenik?
- Hemen iork ez du egiten ya, ez gazta eta ez zenbren, ezta iten deus.
- Erronkarin, Uztarrotzen egiten die...
- Ah!, kan orainik egiten die, bai, zenbrea eta gazta eta guzietarik.
- Eta Zuberoko artzaiek ere egiten die...
- Ah!, seguro, denbra kaitan ere kor iten zen aniz yago, hemen etxerako ta kala iten zen.
- Non egiten zinien gaztak, bordan edo herrian?
- Bordan, bordan, bordan iten zen, kan, sukaldean.
- Xukatzen zomat denbora uzten ziren?
- Ba, eztakit, pues (---) hilabete bat edo bida; ongi-ongi, pues eztakit.

- *Ardi gazta egiten zen beti?*
- *Ba, pues, nasten zen, ahuntz, eta batean begi, pues igual guziak naste-ka, baia ezpazen, begi, ardiik, pues ardi.*
- *Zer hilabetetan egiten ziren? Bedatsean edo udan edo...*
- *Ah, pues, bedatsean, maiatza, aprila, hortik... iten zen, pues kasi-kasi bedatsean «desde luego, se hacía...»*
- *Orduan, ardiak Bardenatik xiten zirenean egiten ziren gaztak?*
- *Ba, pues, lenik xiten bazen goixtar edo, lenik moxten zen, «esquilar».*
- *Zu fan zintzan Bardetara?*
- *Bai, baia denbra kaitan jende gaztea guzia faten zen, neguan Erribrala, Bardenala edo berze herritra, kasik-kasik, denbra kaitan, guziak, hamar, hameka edo amabi urteak kunplitzen zintuelaik, ala!, Erribrala, lan egitra...*
- *Norekin fan zintzan lenengo aldiz?*
- *Pues, anaekin edo, aitekin edo, lagunekin, pues beti etxeko jendekin.*
- *Gogorra zen?, kango bizitza, gogorra zen?*
- *Oh, gogor gogor, orai biño gogorrago... denbra kaitan, pues laur edo borz edo sei hilabete, korlian, goatzerik lurrian, larrua gaiñean, bat edo bida edo larru xukatzen zaoren, pues karen gaiñean, pues, etzen berze goatzeik, koltxonik eta deus e, «entonces».*
- *Hori Bardenetan edo Erriberako herri batetan, non egiten zinien lo?*
- *Ah, pues korle berian. Herriala?, herriala ez zen faten batre, pues gauza bila, xateko bila eta gauza koek, baia, lo eta bizia korlian, igual nola denborak kemen bordan, aste guzia bordan?, pues kan denbora guzia korlian, etzen berze defensarik.*
- *Noiz artio baratzen zintzaien Bardenetan?*
- *Ah, pues segun denborak, pues bedatsea artio.*
- *Eta gero kemen zuzen faten zintzaien portura?*
- *Ah, kebendik pues portuala, uda guzia bortuan, eta bortutik Bardiala eta Bardiala bortualat ta kala, goan eta xin beti leku beriala.*
- *Eta herrira noiz xaunsten zintzaien?*
- *Herriala?, pues, igual batre.*

- *...bizian egita? (---), pues e, alorrean, alorrean, pues katxarro batzurekin trabajatzea.*

- Non duzie borda?, bordara?
- Badakizua non duen xigante goitti kartan? (---) pues «al lau», ondoan.
- Nola joaten zintzaien bordara, oinez edo mandoz?
- Pues guzietarik, baia oiñez mandoan beño yago.
- Iratira faten zintzaien?
- Bai, bai, pues, Iratire kortik, leku koitaik faten gintzan, bai.
- Zer zinien ardiak edo beiak, abelgorri, zer zinien?
- Pues, begi, ba, begiak eta ardiak, pues gauza kuatarik ermaten gintzan, Iratira, eta faten gintzan buelta matera.
- Zer ziren, goian?
- Pues goiti kartan tugu, pues, ardiak, eta «ahora», orai kau faten da elkitzera kanpo.
- Egun igandea da, igandetan ere faten da?
- Bai, bai, artzaia bai.
- Egun guztietan egin behar du...
- Egun guzietan, artzaiak ez du perdonerik.
- Zer egunetan hartzen zien festa?
- Xei? pues igandetarik, «aparte de» igandetarik ezta goardatzen xei, beno, zomait egun fiesta, eztakiat orai Santiago ta festi kuek guardatzen direnez, eta Amaberjina ere bai ezta?, eta gero, gero San Juan, ta badaude bai, xei, «unos cuantos xeies...»

- Zu gazte zintzarian Erriberara fan zintzan?
- Bai, anitx, tokatu zaida «al cabo de los tiempos» anitz fatia Erribrala, tokatu zaida bai.
- Gogorra zen?
- Gogorra, buf!, trabajo kura etzaiken sobrelleba.
- Nun egiten zinien lo han Bardenetan?
- Bardenetan, Bardean?, Bardean, kan pues, mendian, Bardea re gauza serioa da, kasik «más vale marchar a un presidio...»

- Oiñez, oiñez, fan eta xin.
- Zonbat egunez?
- Hirur edo laur egun, hirur edo laur.
- Ba, fite egiten zinien.
- Fateko ebiliz...

... hiltzen?, beti zomait.

– Modorra jartzen ziren? edo...

– Bai, bai modorrek ere bai, orai, zomait, elkitzen zelaik zombait modorra, pues kurak guarek hiltzen ta xaten gintzaka.

– Bardenetan ze xaten zinien?

– Zer?, pues zopa, bilgor-zopa bai, bilgor-zopa, eta okurritzen zelarik, pues ollo-zopa ere bai, orai «que» bilgor-zopa «lo que más», kori usatzen ginuen denbra guzian... «me has entendido...»

– Ezkondu zintzanian Erriberara fan zintzan ere?

– Orai, guzietarik faten da, yaguenak ezkondurik.

– Orai e, erraten ginuen erdaraz «parva» hori da eultzia, eta len ez-paitzegon makinarik egiteko, mozten zen egitaiaz edo daillaz edo zomat gauza hortarik, gero fajo egin eta hura sartu... borda altzinean bazen leku bat prestatrik hortako, han sartzan zen eultzia, eta gero mandoekin edo idiekin edo zerbaitekin egiten zen lana. Orai oritzen niz nola erraten da (sic) eultzian egiteko lekua. Esan dut ez nintzala oritzen baia orai oritu naiz, eta da larraiña.

– Borda guziek?...

– Guziek, guziek, borda guziek eta han sartzan, kanpo, alorretik erman, eta gero egunean, bertze egunean, ezartzen zen espartitrik, larraiñ guzian, eta gero bueltaka, bueltaka, trillo esaten ginuen gauza bat, abrek ermaten zien lasterka, eta harekin xeitu, xei guzia, agotza, eta hala egiten zien, xehatu guzia, eta gero berexi garia agotzetik, eta orduan guzia egiten zen eskuekin, eta gero artsaldean, hori egiten zien eguzkiarekin, beroarekin, eta gero artsaldean, haizearekin berexi, agotza garitik.

– Nola bereizten zen?

– Ba zeuden pala batzuk espres «horcas» erraten ginuen, horkak, eta haiziala egotzi goiti eta agotza ermaten zuen haizea(k) eta garia baratzen lurrean, eta gero bazen bertze bat, bahie deitzen zen, orduan garbi zegoian igaretzen zen handik, ta orduan baratzen zen oso garbi, eta gero zakuetan eseri garia eta agotza sabaiara igan...

– Eta agotzakin zer egiten zinien?

– Abelgorriendako, eta aberendako ere bai... hori xateko eta goatzea egiteko ere bai.

– Garia saltzen zinien?, edo...

- Ez, ez, etxerako, ez ginuen anitz, etxerako, eta ez aski.
- Eta zetako erabiltzen zinien?
- Ogia egiteko, egiten ginuen orduan ogia etxen.
- Irina nola egiten zinien?
- Iriña errostan, eho, bazegon Otsagin errota, eta eho, eta gero etxean baginuen bertze gauza bat, torno erraten baiginuen, eta han berexi irina.
- Xakinen zinue ogia egiten?
- Bai, aisa da hori, esartzen da iriña artesan, bi aldetan, egin zilo bat, eta han esertzen da ura, gatz pixka batekin, eta gero, egosten da lebadurara, prestatrik baitago bezperan, hori desegin ongi, eta gero faten da egosten irina polliki-pollikia eta nasi anitz-anitz, asko, eta gero segi kala, arina egosten eta trabajatu behar da anitz eh?, zeren ogia elkitzen da anitzekin obeki, trabajatzan balimada, eta gero kostatzen da rato bat eh?, igual oron bat eta erdi, eta gero e... uzten da reposatzen, egotzi manta bat edo hala zerbait gauza, eta utzi igual oron pare bat, eta gero bizten da labea, eta ordu..., denbora hortan xiten da ogia, ya fermentatu du, eta orduan egiten da ogiak (sic), len egiten ginuen ogi haundi, hirur kilo edo geixago...
- Egunero egiten zinien ogia?
- Ez, ez, ez, egun batez astean edo kala, jaten ginuen gero ogia, ez zen xukatzen nola oraikoa, eta gero prestatu labea, xagutu eta orduan sartu ogia, eta bi oron edo kala, egosten zen.
- Zer labetan egiten zinien, sukaldeko labean?, edo...
- Sukaldeko labean, su gaiñean ginuen labea, eta sukaldean egiten zen guzia, egin eta egosi eta guzia.
- Ez zinien bertze bat eskaileretan?
- Ez, ez, guk ez ginuen, ez.
- Orduan kozinilla eseri zinienetik etzinukien ogirik egin?
- Ez, orduan kendu ginuen labea, esertzeko kozinillara, ta ya ez dugu egin gehiago.
- Eta handik aitzina erosten zinien?
- Erosten, bai.

OTSAGI (ZARAITZU)

Biktoría Argontzekoa, Mañolandako nagusia, Bixente Kanbra, Garax etxekoa,
Julia Sanzetekoa eta Basilia Contin

- Nola deitzen zara?
- Biktoría Moso Rekalde.
- Zein etxetakoa?
- Argontxe etxea.
- Non ikasi zenuen euskara?
- Pues, karrikan ihardukitzen Kanbren emaztea eta gizona eta gero alaba, alaba bat, bizi den alaba, txikiena eta hala...
- Eta zure aitari eta amari ez zenien aditu euskara?
- Bai, aditu bai, bai, ahakar ¹ egiteko, esto, gaizki errateko guretako.
- Eskolan euskaraz egiten zenuen?
- Ez, ez, deus ere, anitz gaixto eskolan.
- Eta elizan?
- Elizan deus ere.
- Apezak ez ziren euskaldunak?
- Apezak?, ez, ez. Lehen bai anitz, konfesatu eta, guzia, emazteak, «en uskera».
- Pena ematen dizu euskera Otsagin galtzeak?
- Anitz pena, anitz, nik negar egiten (---), zenbat aldiz negar egiten, zergatik behar din galdu?

- Zer etxetakoa zara?
- Mañulanda etxeko.
- Nori aditu zenion euskara?
- Aitak eta amak, aitak eta amak...
- Karrikan elegiten zenuten euskaraz?
- Ez, guti, guti, karrikan guti, guti, guti...
- Eskolan?
- Eskolan, deus ez.

(1) Errieta; haserre egin.

- Eta elizan?
 - Elizan bai, don Daniel, don Daniel.
 - Apezak euskaldunak ziren?
 - Don Daniel bai, don Daniel bai... bertzerik, bertzerik ez... eztakit...
 - Orain, norbaitekin elegiten duzu euskaraz?
 - Orain ez.
 - Noiztik ez duzu euskaraz ihardokitu?
 - Pues, anitz urtez, anitz urtez.
 - Zenbat urte?
 - Pues, berrogeitamar.
- Ene izena da Julia de Carlos Salcet, eta sorturik Sanzeten etxean, «está bien?» ...aitaborze ta...
- Nori aditu zenion euskara?
 - Aitaborze ta amaborzeari ², eta aita ta amari ere bai.
 - Noiz artio elegin zenuen euskaraz?
 - Hamalau edo hamabost urte artio.
 - Eta eskolan?
 - Eskolan ez, ez; elizan, elizan katezismoan.
 - Orain inorekin elegiten duzu euskaraz?
 - Ez, ez inorekin.
 - Zenbat urtez egon zara euskaraz ihardukitu gabe?
 - Hirurogeita bat, hirurogeita bat.
 - Pena ematen dizu euskara galtzea...?
 - Anitz pena, anitz.
- Erranen dizut nola deitzen naizen, pues, Bizente Kanbra.
 - Zein etxetakoa?
 - Garaxena.
 - Eta zure emaztea zein etxetakoa...?
 - Nor?, emaztea?, Burlatenea, Burlateneko.
 - Euskalduna zen ere?
 - Euskalduna, bai.
 - Noiz arte elegin zenuten euskaraz, zuen artean?
 - Gure artean?, ba, ez genuen denbora anitzez egin euskara ez, gure artean, denbora haietan guti, guti juntatzen zen gazteria.

(2) Aitonari eta amonari.

- Zure aitari eta amari aditu zenien erdara?
- Erdara?, ez, guti, guti edo batere.
- Nun ikasi zenuen euskara?
- Hemen, etxen.
- Eta karrikan?
- Eta karrikan, eta karrikan, pues..., ba..., konpañerekin, konpañerekin.
- Zure adineko mutikoez euskaraz ihardukitzen ziren ere?
- Bai, ihardukitzen zuten, bai.
- Pena ematen dizu euskara galtzeak?
- Bai, pena ematen du, bai, ikasten den guzia ez likek utzi behar galtzerat...

– Basilia Contin de Carlos, Otsagikoa, lehen Tomaxena, eta orain Blasadutena. Nik ikasi nuen, lehenbizikoa ikasi nuen euskaraz, «o sea que» nere etxean ez zen hitzegiten erdaraz batere, eta ni naiz handiena, lehenbizikoa, eta gero ez naiz oroitzen noiz artio egin nuen, amak esaten zuen eskolara joan artio, orduan utzi nuela elegitea, baina lehenbizikoa, ikasi nuen hori, euskara.

– Amaborzeak eta aitaborzeak bazekiten zerbait erdara, baina ez zuten egiten sekula, haien artean sekula, guri zenbait aldiz, baina euskaraz beti, haien artean beti eta guri ere bai, konprenditzen genuen guzia, eta beti egiten zuten, nik ezagutu nuen, eta ni handiturik ere bai, eta aitak eta amak beti euskaraz egiten zuten ele haien artean. eta guri ere bai baina gu, gu... egiten erdaraz, haiek euskeraz eta guk erdaraz.

– Artzaiek Bardeetan euskaraz elegiten zuten haien artean?

– Bai, uste badut baietz, eh, nere aitak eta osaba Benanziok beti egiten zuten, jiten zirenean Otsagira, horrela, igual egiten zuten neguan, junto zeuden negu guzia, beti euskaraz,

– Zaraitzuko zein herritan galdu zen euskara lehenbizi?

– Nik beti aditu dut Itzaltzun.

– Zergatik Itzaltzun?

– Pues, «no sé», akaso kontu da baina esaten zuten karabinero anitz heldu zela hara bizitzera eta orduan galdu zen euskara.

– Egun San Juan eguna da, nola igaretzen ⁴ zen lehen eguna?

– Pues, jan eta deseiuinas (?) mezara joan, gero jan eta ez dantza ez deus ere, deus ere...

– Etxean igaretzen zenuten?

– Etxean, etxean edo paseatzen, karreteran paseatzen, bartz edo sei mutil, emazte eta bi mutil... akonpañatzen, eta hala, zer behar dugu egin.

(4) Igaro.

– Pues, igande bat bezala, goizean konfesa ta komeka, gero mezara, arratsaldean bezperetara, eta gero plazan dantza.

– Nondik jiten ⁶ zen musika, musikariak?

– Musikariak?, herriko gitarrak.

– Nortzuk ziren?

– Nor?, Motxale, eta Xinkoenetxean, eta gero nor?...

– Gizonek, lehen gizon guziek jakiten zuten. Mutilak pilota jokoan, eta gizonak kalbara, blankoa txokatzen duten kalbara, gero koadrilak hasten ziren han (---), eta gero etxera.

– Nola jolasten da kalbara?

– Nola?, kalba zen harri bat, harri bat eta gero bertze batekin egotsen ⁷ zuten, bertze harria da atsoa, eta atsoan egots eta hala.

– Pues, pelotariak ziren Gabriel Baraze, Roberto Baraze, Josemari Larrat, gero Jaunsaraz eta Lasa, hoiek, sekretarioaren semeak Sarearekin...

– Bai, igandeetan, igandeetan, eta gero egiten zuten kanpeonato, Ezkarozerekin eta Ezparzarekin...

– Nortzuk ziren pelotari onenak?

– Onenak?, Otsagiko eta Ezkaroze... etan ere bai.

– Espartzakoak eta Pardixerriakoak txarragoak.

– Txarrak, txarragoak.

– Nola zelebratzen zen lehen San Juan eguna?

– Pues, «sobre eso», hori ere, pues, orain bezala zelebratzen zen.

– Zer egiten zenuten?, musikaririk bazegoen egun hortan?

– Bai, guti egoten zen musika, guti...

– Eta pilotariak?

– Pilotariak ere ez anitz ez, bi gauza, bi ofizio hauek ez ziren usatzen anitz.

– Pues hola izaten zen festa, baina ez gurean bakarrik, eta jiten zen zenbait huesped, Ezkarozeko edo lhaurrietako edo, hala... egin bazkari on bat eta horrekin bukatu.

– Dantzariak elkitzen ⁸ ziren?

– Nik ez dut ezagutu hori, lehen ez dakit.

– Mirrix-marrax, non izan? –Amiñarenean. –Zer eman? –Txitxi eta papa.

(6) Etortzen.

(7) Jaurtiki; bota; jo.

(8) Ateratzen; irteten.

–Non ene partea? –Garaitzuepan ⁹. –Garaitzua non? –Suak erre. –Sua non?
–Urak hil. –Ura non? –Idiak edan. –Idia non? –Arto ereiten –Artoa non?
–Oiloak jan. –Oiloa non? –Arraultze erruten. –Arroltzea non? –Apezak jan.
–Apeza non? –Ori kukulian kukulian meza ematen.

– Mirrix-marrax, non egon? –Amaborzearenean. –Zer eman? –Txitxi eta
papa. –Non ene partea? –garaizuepan. –garaizua non? –Suak erre. –Sua
non? –Urak hil. –Ura non? –Idiak edan. –Idiak non? –Arto ereiten. –Artoa non?
–Oiloak jan. –Oiloa non? –Arraultze erruten. –Arraultzea non? –Apezak jan.
–Apeza non? –Sarri kukulian meza ematen.

Eskerrak usoak ekarri
gure mutikotxoari,
birigarroak zozoa
gure mutiko goxoa.

Lo egiten badidazu
amak kantatuko dizu,
lo egin ene maitea,
lo gozoa egin zazu.

– Kuxkuilu-muskuilu dantzari, bernar txirrinero, beltza galtzandi, otsoa dala
bistan, katila ipurdi handi, txalastaso kuarto, siembro ttokilo, andres gallego,
ollanda arraultz errule, inoxantz urregile, gotzo xakoegile, aztal aragixale,
iriarta karregile, tomax xarzaletero, profesorro xorro gorro.

– Jo, jo, Manex, aita hil duk. –Zer izan du? –Baratzeko murrutik erori duk.
Hautsi du azarik? –Ez, ez, rai-ta-la-la.

– Erran dute jiteko oztekiala ¹⁰. –Oztekiala ez naitekeela jin ¹¹, baina jate-
kiala ¹² joanen naizela.

Dingilin-don mari martin,
aitak astoa hilen din.
hiltzen badu hilen din,
txitxi ta zerengitin.

...Azkonakoetxea.

– Noiz artio elegin zenuen euskaraz?

– Pues, hogeitau urteak artio.

– Orain inorekin elegiten duzu?

(9) Gaitzeru; lakari; imilaun; imina. Ale-edukiera neurria.

(10) Ehorzketara.

(11) Etorri.

(12) Ondra-jana; oturuntza.

- Inorekin.
- Zenbat urtez ez duzu euskaraz elegin?
- Mekaguen diez, euskaraz, pues, igual, hirurogei urte.

- Oroitzen duzu gazta nola egiten zen?
- Gazta?, klaro, pues, esnearekin.
- Eta zer egiten zen?
- Pues, kuajoa, esnea kuajatzen zen.
- Zenbat gazta egiten zenuen urtean.
- Pues, etxerako, hemen ez da egiten ia, guti, «poco más o menos» zerbait saltzen zen baina guti, gehiena...
- Gazta anitz izaten zenuen?
- Ba!, pues, etxen bertze gauza bat bezala, askaltzeko ta, postretako, bazkalduta, ta arratsaldeetan eta hala...
- Eta zenbera nola egiten zen?
- Ah, zenbera?, pues gero berriz gaztari kentzen zitzaiona, hura berriz suan ezartzen zen berxko ¹³ batean, eta irakiten, irakiten, irakiten, baratzen zen koajaturik, eta gero horrela pues, zakuto batean eskurritzen zen, ta hala, «a lo mejor pues», han baratzen zena, jada txuku ¹⁴...
- Nola jaten zenuten zenderena, gordinik edo, zopan edo, nola?...
- Ah, zopa, eta gordinik ere bai zen onik, baina gehienaz zopa, zenberen zopa.
- Orain jaten duzu zenberenik?
- Orain?, ez baitugu, ez dugu jaten.
- Inork ez du egiten orain? Inork ez du egiten zenberenik?
- Hemen inork ez du egiten jada, ez gazta eta ez zenberen, ez da egiten deus.
- Erronkarin, Uztarroten egiten dute...
- Ah!, han oraindik egiten dute, bai zenberena eta gazta eta guzietarik.
- Eta Zuberoko artzaiek ere egiten dute...
- Ah!, seguro, denbora haietan ere hor egiten zen anitz gehiago, hemen etxerako eta hala egiten zen.
- Non egiten zenituzten gaztak, bordan edo herrian?
- Bordan, bordan, bordan egiten zen, han, sukaldean.
- Xukatzen zenbat denbora uzten ziren?
- Ba, eztaikit, pues (---) hilabete bat edo bida; ongi-ongi, pues ez dakit.

(13) Bertz edo pertz ttikia; lapikotxoa.

(14) Siku; idor.

- Ardi gazta egiten zen beti?
 - Ba, pues, nahasten zen, ahuntz, eta batean behi pues igual guziak nasteka, baina ez bazen, behi, ardirik, pues ardi.
 - Zer hilabetetan egiten ziren? Bedatsean ¹⁵ edo udan edo...
 - Ah, pues, bedatsean, maiatza, apirila, hortik... egiten zen, pues kasi-kasik bedatsean «desde luego, se hacía...»
 - Orduan, ardiak Bardenatik jiten zirenean egiten ziren gaztak?
 - Ba, pues, lehenik jiten baziren goiztar edo, lehenik mozten zen, «esquilar».
 - Zu joan zinen Bardetara?
 - Bai, baina denbora haietan jende gaztea guzia joaten zen, neguan Erriberara, Bardenara edo bertze herrietara, kasik-kasik, denbora haietan, guziak, hamar, hamaika edo hamabi urteak kunplitzen zenituelarik ala!, Erriberara, lan egitera...
 - Norekin joan zinen lehenengo aldiz?
 - Pues, anaiekin edo, aitarekin edo, lagunekin, pues, beti etxeko jendearekin.
 - Gogorra zen? hango bizitza, gogorra zen?
 - Oh, gogor gogor, orain baino gogorrago... Denbora haietan, pues lau edo bortz edo sei hilabete, korralean, ohatzerik lurrean, larru gainean, bat edo bida edo larru xukatzen zeuden, pues haien gainean, pues, ez zen bertze ohatzerik, koltxoirik eta deus ere, «entonces».
 - Hori Bardenetan edo Erriberako herri batetan, non egiten zenuten lo?
 - Ah, pues korrale berean. Herrira?, herrira ez zen joaten batere, pues gauza bila, jateko bila eta gauza horiek, baina, lo eta bizia korralean, igual nola denborak hemen bordan, aste guzia bordan?, pues han denbora guzia korralean, ez zen bertze defentsarik.
 - Noiz artio baratzen zineten Bardenetan?
 - Ah, pues segun denborak, pues, bedatsea artio.
 - Eta gero hemen zuzen joaten zineten portura?
 - Ah!, hemendik pues bortura ¹⁶, uda guzia bortuan, eta bortutik Bardeara eta Bardeara borturat ta hala, joan eta jin beti leku berera.
 - Eta herrira noiz jaunsten zineten?
 - Herrira?, pues, igual batere.
- ... bizian egita? (---), pues e, alorrean, alorrean, pues katxarro batzurekin trabajatzea.

(15) Udaberrian.

(16) Pirinioko goialdera.

- Non duzue borda?, borda?
- Badakizu non duen xigante (---) goiti hartan?, pues, «al lado», ondoan.
- Nola joaten zineten bordara, oinez edo mandoz?
- Pues guzietarik, baina oinez mandoan baino gehiago.
- Iratira joaten zineten?
- Bai, bai, pues, Iratira hortik, leku horietarik joaten ginen, bai.
- Zer zenuten, ardiak edo behiak, abelgorri, zer zenuten?
- Pues, behi, ba, behiak eta ardiak, pues gauza horietarik eramaten genituen Iratira, eta joaten ginen buelta ematera.
- Zer ziren, goian?
- Pues goiti hartan ditugu, pues, ardiak, eta «ahora», orain hau joaten da elkitzera kanpo.
- Egun igandea da, igandetan ere joaten da?
- Bai, bai, artzaia bai.
- Egun guztietan egin behar du...
- Egun guztietan, artzaiak ez du perdonerik.
- Zer egunetan hartzen zuten festa?
- Xei? ¹⁷, pues igandetarik, «aparte de» igandetarik ez da goardatzen xei, beno, zenbait egun festa, ez dakit orain Santiago eta festa horiek guardatzen direnez, eta Amabirjina ere bai ezta?, eta gero, gero San Juan eta badaude bai, xei, «unos cuantos xeies..»

- Zu gazte zinenean Erriberara joan zinen?
- Bai, anitz, tokatu zait «al cabo de los tiempos» anitz joatea Erriberara, tokatu zait bai.
- Gogorra zen?
- Gogorra, buf!, trabajo hura ez zitekeen sobrelleba.
- Non egiten zenuten lo han Bardenetan?
- Bardenetan, Bardean?, Bardean, han, pues, mendian, Bardea ere gauza serioa da, kasik «más vale marchar a un presidio...»

- Oinez, oinez, joan eta jin.
- Zenbat egunez?
- Hiru edo lau egun, hiru edo lau.
- Ba, fite egiten zenuten.
- Joateko ibiliz...

(17) Jai.

- ...hiltzen?, beti zenbait.
- Modorra ¹⁸ jartzen ziren? edo...
 - Bai, bai modorrak ere bai, orain, zenbait, elkitzen zelarik zenbait modorra, pues haiek gerok hiltzen ta jaten genituen.
 - Bardenetan zer jaten zenuten?
 - Zer?, pues zopa, bilgor-zopa ¹⁹ bai, bilgor-zopa, eta okurritzen zelarik, pues olio-zopa ere bai, orain «que» bilgor-zopa «lo que más», hori usatzen genuen denbora guzian... «me has entendido...»
 - Ezkondu zinenean Erriberara joan zinen ere?
 - Orain, guzietarik joaten da, gehienak ezkondurik.
- Orain ere, erraten genuen erdaraz «parva» hori da eultzia, eta lehen ez bait zegoen makinarik egiteko, mozten zen igitaiaz edo dailaz ²⁰ edo zenbat gauza horietarik, gero fajo egin eta hura sartu... borda aitzinean bazen leku bat prestaturik horretako, han sartzen zen eultzia, eta gero mandoekin edo idiekin edo zerbaitekin egiten zen lana. Orain oroitzen naiz nola erraten da (sic) eultzian egiteko lekua. Esan dut ez nintzela oroitzen, baina orain oroitu naiz, eta da larraina.
- Borda guziek?...
 - Guziek, guziek, borda guziek ²¹ eta han sartzen, kanpo, alorretik eramanean, eta gero egunean, bertze egunean, ezartzen zen espartziturik, larrain guzian, eta gero bueltaka, bueltaka, trillo esaten ginuen gauza bat, abereek eramaten zuten lasterka, eta harekin xehatu, xeha guzia, agotza, eta hala egiten zuten, xehatu guzia, eta gero berezi garia agotzetik, eta orduan guzia egiten zen eskuekin, eta gero arratsaldean, hori egiten zuten eguzkiarekin, beroarekin, eta gero arratsaldean, haizearekin berezi, agotza garitik.
 - Nola bereizten zen?
 - Ba zeuden pala batzuk espres «horcas» erraten genuen, horkak, eta haizera egotzi goiti eta agotza eramaten zuen haizeak eta garia baratzen lurrean, eta gero bazen bertze bat, bahe deitzen zen, orduan garbi zegoenean igaretzen ²² zen handik, eta orduan baratzen zen oso garbi, eta gero zakuetan ezarri garia eta agotza sabaira ²³ igan...
 - Eta agotzarekin zer egiten zenuten?
 - Abelgorriendako, eta abereendako ere bai... hori jateko eta ohatzea egiteko ere bai.
 - Garia saltzen zenuten?, edo...

(18) Ardien eritasun mota bat.

(19) Koipe, urin edo gantzakin eginiko zopa.

(20) Segaz.

(21) Borda guziek zutela larraina, alegia.

(22) Iragazi.

(23) Ganbarara.

- Ez, ez, etxerako, ez genuen anitz, etxerako, eta ez aski.
- Eta zertako erabiltzen zenuten?
- Ogia egiteko, egiten genuen orduan ogia etxean.
- Irina nola egiten zenuten?
 - Irina errotan, eho, bazegoen Otsagin errota, eta eho, eta gero etxean bagenuen bertze gauza bat, torno erraten bait genuen, eta han berezi irina.
 - Jakinen zenuke ogia egiten?
 - Bai, aisa da hori, ezartzen da irina artesan, bi aldetan, egin zulo bat, eta han ezartzen da ura, gatz piska batekin, eta gero, egozten da lebadura, prestaturik baitago bezperan, hori desegin ongi, eta gero joaten da egozten irina poliki-polikia eta nahasi anitz-anitz, asko, eta gero segi hala, irina egozten eta trabajatu behar da anitz eh?, zeren ogia elkitzen ²⁴ da anitzekin hobeki, trabajatzen baldin bada, eta gero kostatzen da rato bat eh?, igual oren bat eta erdi, eta gero e... uzten da reposatzen, egotzi manta bat edo hala zerbait gauza, eta utzi igual oren pare bat, eta gero bizten da labea, eta ordu... denbora horretan jiten da ogia, iada fermentatu du, eta orduan egiten da ogiak (sic), lehen egiten genuen ogi haundi, hiru kilo edo gehixeago...
 - Egunero egiten zenuten ogia?
 - Ez, ez, ez, egun batez astean edo hala, jaten ginuen gero ogia, ez zen xukatzen nola oraingoa, eta gero prestatu labea, xahutu ²⁵ eta orduan sartu ogia, eta bi oren edo hala, egosten zen.
 - Zer labetan egiten zenuten, sukaldeko labean?, edo...
 - Sukaldeko labean, su gainean genuen labea, eta sukaldean egiten zen guzia, egin eta egosi eta guzia.
 - Ez zenuten bertze bat eskaileretan?
 - Ez, ez, guk ez genuen, ez.
 - Orduan kozinilla ezarri zenutenetik ez zenuten ogirik egin?
 - Ez, orduan kendu genuen labea, ezartzeko kozinilla, ta jada ez dugu egin gehiago.
 - Eta handik aitzina erosten zenuten?
 - Erosten, bai.

(24) Ateratzen.

(25) Garbitu.